

Gobernuak prekaritatean nahi gaitu!

Legealdiko EPE deialdi guztiak burututa ere, kasurik hoberenean hezkuntza publikoko Irakasle funtzionarioetan %28ko behin behinekotasun tasa mantenduko da.

BEHIN
BEHINEKOTASUN
TASA HANDIA



EGONKORTASUN-
FALTA enplegu zein
bizitzan



PREKARITATEA

Eusko Jaurlaritzak enplegatzaile den esparruetan prekaritatea bultzatzen du. HEZKUNTZA kalitatea eta lan baldintzak urratzen ditu!

Neurri eranginkorrak planteatu ordez, arazoa makilaje merkez estaltzen du.

ESTRATEGIA:

Prekarioen arteko borroka sustatzea +
sindikatuak
horren kudeaketan murgiltzea



GOBERNUAK PROPOSATUTAKO “EGONKORTASUN” AGINDUA-REN EDUKIA

■ ZER DA AGINDU ZIRRIBORROA?

- Aldi baterako (ordezkoen) lanpostuak esleitu eta zerbitzua ematen ari diren zenbait langile lanpostu horietan finkatzeko prozedura.

■ NOIZ JARTZEN DA MARTXAN?

- HH eta LH 2020/21 ikasturtean.
- BH, Lanbide Heziketan eta gainerako taldeetan 2021/22 ikasturtean.

■ BI PROZEDURA BARNEBILTZEN DITU:

*ESLEIPEN PROZEDURA:

• Ohiko fasea: LZ-ko lanpostu hutsak esleituko dira:

- Lanaldi osoa + ikasturte osorako direnak.

• Ez ohiko fasea:

- Ikasturte osorako ez direnak + ikasturtearen lehen egunetik hasten direnak + gutxienez hilabeteko iraupena dutenak.
- Azken birbaremazioaren arabera banatuko dira lanpostuak. Beti ere, 3 eguneko epea izango da aldaketak egiteko (lurralde, jardunaldia).
- Behin lanpostua esleituta lanpostuaren jabetza hartuko da.
- Justifikatu gabeko uko egiteak zerrendatik kanporatzea ekarriko du.

- Izendapen oro iraungi egingo da ordezkaturako pertsona itzuli, plaza funtzionario batek zein praktikaldiko batek hartuko balu eta baita lanpostua desagertzen bada ere.

- Plazarik gabe geratu den pertsonak ordezkapenak egin beharko ditu hurrengo urteko ohiko fasean parte hartu ahal izan arte.

- Ohiko faserako puntu asko izanda ere, hurrengo urteko ohiko fasean eskainiko den plaza kopurua askoz murriztagoa izango da (jubilazioak...) eta jende ugari puntu gutxiagorekin lanpostuetan finkatuta egongo da....

*“EGONKORTZE” PROZEDURA:

- * Automatikoki egingo da urtez urte:

- Ohiko fasean esleituak izan direnak (lanaldi oso eta urte osorako).

- * Borondatezkoa izango da:

- Jardunaldi murriztuko lanpostu edo ezaugarri bereziko kasuan.

- * Egonkortzeko lehentasuna zehazteko irizpideak ikastetxean espezialitateko lanpostu bat desagertzen denean edo plaza jatorrizko “jabeak” berreskuratzen badu:

- Ikastetxeko etengabeko antzinatatua (hilabeteko 4 puntu): Lanpostuaren ez borondatezko galera egon

bada, zentroko antzintasuna mantenduko da.

- Zerrendako puntuazioa.

** Beraz, zure puntuazioak balio erlatiboa du postu berean finkatzeko lehia dagoen kasuan, zentroko antzintasunak pisu handia izango baitu.

* Finkatzeari uko egin ahal izateko:

- Gutxienez 2 ikasturte finkatuta pasa behar dituzu leku berean.
- Esleipenean akatsa egon bada.

** Uko egiteak dakarren ondorioa: Hurrengo ohiko faserarte ordezkapenak egitea egokituko zaio (ordezkagunea) eta ondoren, noski, plaza gutxiago aukeratu.

Uko egin gabe ere, esleitu eta finkatu zaizun plaza galduz gero, egoera bera da, hau da, hurrengo ohiko fasean parte hartu beharko duzu edo eta ez ohikoan.

AGINDUAREN ARRISKUAK

- Inkognita ugari esleipen prozedura berrian eta plazen finkapenerako prozeduran.

- Ezinezkoa da hutsune guzti horiek sor ditzaketen arrisku egoera guztiak aurreikustea.

- Behin behineko langile guztiengan ziurgabetasun egoera areagotzen du.

- Orain arteko lanpostuaren lorpen edo mantentzeari begirako berme edo espektatiba minimo bakarra galtzea dakar: puntuen balio galera.

Aurreko sistemarekin, prekarioa izanda ere, geroz eta denbora gehiago lanean, geroz eta puntu gehiago, geroz eta gorago zerrendetan, geroz eta ESKUBIDE handiagoa lanpostua lortzeko/mantentzeko lehian; baita jardunaldi osoa izateko aukeran edo urte osoa lan egiteko aukeran, ondorioz, baita urteko soldatan ere.

Sistema berriarekin aldiz, ez du inporta zenbat puntu dituzun edo zenbat denbora dararamazun ordezkapenak egiten: lanpostuen iraupena ezin denez aldeztatik jakin, zortearen arabera finkatuko zara (ala ez), eta ondorioz, lan egingo duzu (ala ez) hurrengo ikasturtean, beraz prekaritatea handiagoa da.



ELA, BORROKARAKO PREST

ELAn oso argi daukagu, kontsolidazio prozesuak egitea ezinbestekoa dela egoera iraultzeko, argi daukagun bezala, prozesu oro langileen eskubideak defendatuz eta berme guztiak aplikatuz burutu behar dela.

ELA-ren ustetan salbuespeneko egoera honen aurrean salbuespeneko konponbide bat beharrezkoa da eta konponbide horrek hemendik etorri beharko du ezinbestean:

* Egiturazko lanpostu guztien azaleratzea.

- Hauek ditugunean Lanpostu zerrenda ofizialean jaso beharko dira.

* Salbuespeneko kontsolidazio prozesua.

* Behin behineko direnei zuzendutako prozesua izango da.

* Oposaketa fasea ez da baztertzaila izango edo behin behineko direnek lanpostua kontsolidatze-ara egokitua izango da

* Antzinasunari pisu berezia emango zaio.

** Kontsolidazio prozesuaren aurretik, lekualdatze lehiaketa masibo bat eman beharko da.

* Behin-behinekotasuna errepika ez dadin neurriak ezartzea.

* “Behin-behineko” diren lanpostuak denbora zehatz batean “egiturazko” bilakatu automatikoki, beraz, lanpostu zerrenda ofizialean sartu eta EPE-ra atera derrigor.

* EPE horien aurretik ere beti lekualdatze lehiaketak egingo dira.

* Hau betetzen ez duten administrazioek zehapenak izango dituzte: Inhabilitazioak, Kalteordainak...

Estatuko zein bertoko erakundeek plateatutako egonkortasun agindua gaituko duen alternatibarik ez dagoela sinistarazi nahi digute, baina gezurra da; Borondate kontua da.

BERRIZ ERE PREKARITATEAREN URREAN KALERA ATERATZEKO GARAIA HELDU DA!

ELA-TIK MOBILIZAZIOAK BULTZATUKO DITUGU JAURLARITZARI AGINDU ZIRRIBORRO HAU BERTAN BEHERA UZTEKO EXIJITUZ ETA BEHIN-BEHINEKOTASUNAREN AURREAN KONTOLIDAZIO PROZESU ERAGINKORRAK APLIKATZEKO ESKATUZ!

ALDI BEREAN, GAINERAKO SINDIKATUEI ERE DEIA EGITEN DIEGU BORROKA HONETARA BATU ETA BENETAKO KONTOLIDAZIOAREN ALDE LERRATZEKO

